

UDAL KONTSUMO KONTSEILUAREN ARAUDIA

1. ATALA.

Udalerrian burutu beharreko kontsumo politikaren gestioa zehaztu, jarraipena, egin eta aurkezten zaizkion aholku-eskeei erantzutea helburu duen parte hartze demokratikoan oinarritutako kide anitzeko organoa da Udal Kontsumo Kontseilua.

2. ATALA. EGINKIZUNAK

Honako hauek ditu Kontseiluak eginkizun:

- a) Ekitaldi bakoitzean kontsumo arlorako behar den udal aurrekontuaren zenbatekoari buruzko proposamena -behar bezala arrazoituta- aurkeztea udalbatzarrari eta diru horren banaketa zaintzea.
- b) Aholkularitza lana egitea eta Udalarekin lankidetzan aritzea kontsumo arloan, bai Kontseiluaren beraren ekimenez, bai Udalaren ekimenez ere.
- c) Kontseiluaren helburuak lortzeko beharrezko den guztietan hainbat erakunde eta pertsonekin harremanetan jartzea.
- d) Kontsumo arloarekin zerikusia duten egitarauetan Udaleko batzorde eta ordezkarietekin lankidetzan aritzea.
- e) Aldizkari, liburuska, eta abar. argiataratzea bultzatzea.
- f) Herritarrek kontsumo arloan duten jakintza eta zerbitzu maila areagotzeko iradokizun eta ekimenak bideratzea.
- g) Erabiltzaileek kontsumo arloan dituzten eskubide eta betebeharrak ezagutu daitezten lan egitea, eta aurkezten dituzten erreklamazioak aztertu eta horiei buruzko argibideak ematea, hala behar izanez gero.
- h) Osasun, Kontsumo eta Gizarte Zerbitzu Batzordeari egindako guztiaren berri ematea.

3. ATALA. BATZORDEAREN ERAKETA.

Honako hauek izango dira Kontseiluko partaide:

- a) Kontseiluko Presidentea: Ordiziako Udaleko Alkatea edo berak aukeratutako Osasun, Kontsumo eta Gizarte Zerbitzu Batzordeko zinegotzia.
- b) Presidente orde: Kontsumo arloko Zinegotzia.
- c) Idazkaria: Kontsumo arloko Burua.
- d) Kontsumitzaile elkarte bakoitzeko ordezkari bana.
- e) Enpresari elkarte bakoitzeko ordezkari bana.
- f) Bizilagunen Elkarteetako lau ordezkari.



4. ATALA. FUNTZIONAMENDUA

Udal Kontsumo Kontseiluak hiru hilabetero egingo ditu ohizko bilerak, eta Presidenteak edo partaideen laurdenak egoki irizten duenean apartekoak.

5. ATALA. ANTOLAKETA

Kontseiluan bertan azpibatzerdeak sor daitezke, gai puntualak edo bestelakoak aztertzeko, partaideen gehiengoak hala uste duenean.

6. ATALA. KONTSEILUKIDEEN EGINKIZUNAK

Presidentearen eginkizunak:

- a) Kontseiluaren Osoko Bilkuretarako deialdia egin eta buru izatea.
- b) Kontseiluaren legezko ordezkari izatea.
- c) Kontseiluaren -eta egonez gero lan-batzordeen- eginkizunak bultzatu eta koordinatzea.
- d) Bileretako aztergai-zerrenda egitea.

7. ATALA. BILERETARAKO DEIALDIAK

Deialdiak Kontseiluko Presidenteak egin beharko ditu, bilera eguna baino bost egun lehenago gutxienez ohizko bilerak direnean, eta bi egun lehenago apartekoak direnean.

8. ATALA. BILERAK

Kontseilukideen gehiengo soila beharko da Kontseilua biltzeko "quorum"a egon dadin. Kopuru hori lortzen ez bada, beste deialdi bat egin beharko da, hasieran ezarritako ordua baino ordu erdi geroago, eta orduan bilduko da Kontseilua, dena dela partaide kopurua.

9. ATALA. ERABAKIAK HARTZEA

Erabakiak gehiengo soilez hartuko dira. Berdinketa egonez gero, Presidenteak izango luke ebazte-indarrezko botoa deritzona.

10. ATALA.

Kontseiluko kideren batek, inolako arrazoirik gabe, ondoz ondoko hiru bileretara huts egiten badu, bertan behera utzi beharko du Kontseilua eta beste norbait izendatuko da bere lekua bete dezan.

Elkarteen ordezkari diren kideek elkarte horiek egoki uste dutenean utzi beharko dute kontseilua. Elkarte bakoitzak idatziz eman beharko du erabaki horren berri.

11. ATALA.



Bilera bakoitzean esandakoa aktan jasoko da, eta bertan adieraziko eguna, ordua, lekua, bildutakoen izen-abizenak, aztergaiak, eta bozketen emaitza.

12. ATALA

Akta egin ondoren idazkariak izenpetu eta ale bana emango dio kide bakoitzari, irakurri eta hurrengo osoko bilkuran onar dadin.

13. ATALA.

Presidenteak beste pertsona batzuei ere egin diezaieke Bilkuran parte hartzeko deia, aztergaiei buruzko azalpenak edo argibideak eman ditzaten. Hitz egiteko eskubidez baina boto ematekorik gabe eskuhartuko dute bileran.

14. ATALA.

Kontseiluko Presidentea eta Kontseiluko Bilkurak berak aukeratutako bi kide izango dira Udal Kontsumo Kontseiluaren ordezkari Osasun eta Gizarte Zerbitzu Batzordean. Kontseiluak Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Udal Bulegoan izango du egoitza.

